



Enplegua sortzearen alde jarraitzen dugu

Hiru deialdiren bidez, Agoizko Udalak zazpi langile berri kontratatuko ditu, zenbait funtzio egiteko. Gizarteratze (RIIS) modalitatearen babesean, hiru langile kontratatuko dira, lanaldi osoarekin, hamabi hilabetez. Langile horiek D mailakoak izanen dira, eta Agoizko udalaren zerbitzura arituko dira zerbitzu anitzetan.

Gainera, deialdi bat egin da, langabe zeuden hiru pertsona



gehiago kontratatzeko. Horiek, berriz, sei hilabetez arituko dira, gizarte eta interes orokorreko lanak edo zerbitzuak egiteko.

Azken deialdia administrari laguntzaile bat kontratatzeko egin da. Horren kasuan, lanaren iraupena urte batekoa izanen da, eta langileak izanen dituen eginkizunen artean dago udaleko administrazio zerbitzuei laguntza ematea eta jendaurrean aritzea.

Bortizkeria matxista gehiagorik ez

Berriz ere apirilean, bi aldiz gainera, elkartu behar izan genuen bortizkeria matxista jaso zuten bi emakumeren aldeko elkartasuna eta laguntza adierazteko. Gizartearen gaitz horrekin bukatzea da helburua, izan ere, EZETZA DA EZETZ.

Alde batetik, Agoizko Udala atxiki zen Euskal Herriko Emakumeen Martxak deitutako elkarretaratze deialdiari, Gasteizen emakume bat eta haren alaba

erailketa zela kausa. Bigarren elkarretaratzea, berriz, udaletxeko atearen aurrean egin zen, «La Manada» deitutako gizonen taldeak 2016ko Sanferminetan egin zuten bortxaketaren inguruko epaia, hain eztabaidagarri suertatu dena, jakitera eman eta gero. Hamarnaka pertsona elkartu ziren udaletxean, haien haserrea eta higuinarritasuna, hala nola biktimarekiko elkartasuna, adierazteko.



Pentsiodunen inguruko mozioa, onetsita

Agoizko Udalak aho batez onetsi zuen pentsiodunen aldeko mozio bat, Nafarroako Pentsionistak Martxan elkarteak sustatutakoa, eta udal talde guztiei aztertzeke eta eztabaidatzeko gonbitea egiten ziena.

Elkarte horren eskariaren arrazoiak pentsiodunen diru ahalmenaren gainbehera da, eta bost puntu jasotzen ditu, jarraian adierazten diren honako hauek hain zuzen ere:

1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.

2.- 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez (batez besteko soldata haztatuaren %60a), eta non gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Nafarroako Gobernuari,



aipatu kopurua pentsiodun guztiek hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.

3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak bermatu daitezkeen.

4.- Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezaugarria arbuia dadila, zeinak gure pen-

sioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.

5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Nafarroako Gobernuari Udal honek onartu dituen erabakiak.

Laburbilduz, azken urte hauetan estatuko gobernuak pentsioen kalterako hartu dituzten erabakiak eta bultzatu dituzten erreformak direla eta, borondate politiko edukitzea eta gizarte beharrak lehenestearen alde agertzea da.

Agoitz, Sahararekin

«Agoitz, Sahararekin» lemapean, Nafarroako Saharako Lagunak Elkartea gure herrira hurbildu zen hitzaldi sorta bat ematera, irabazi asmorik gabeko erakunde horrek Saharako herritarrekin bultzatu dituen garapen egitasmoak ezagutzera emateko asmoz. Agoizko Udalaren laguntzarekin eskainitako hiru hitzaldietako gaiak honakoak izan ziren: «Saharako herriaren auzia», «Oporrak bakean» eta «Saharako presoak».

Dibulgazio jardunaldi horren helburua Tinduf-en (Aljeria) inguruan dauden kanpamenduetako errefuxiatuen egoera zein den jakitera ematea eta kontzientziatzea izan zen. Errefuxiatuekiko elkartzun sentimenduak biztuarazi nahi dira nafarren artean, bertan dauden pertsonak pairatzen ari baitira erabaki eta ekintza politikoen ondorio zentzugabeak.



Agoitzek APP aplikazioa aurkeztu du herritarren partaidetzari buruzko jardunaldi batean

Toki entitateetako berrogeita hamar bat hautetsi eta teknikariek parte hartu zuten herritarren partaidetza prozesuei aplikatutako informazio eta komunikazio teknologia berriei buruzko jardunaldi batean.

Goizean zehar, Josep Lluís Martík eta Ismael Peñak, Pompeu Fabra eta Universitat Oberta de Catalunya unibertsitateetako irakasleek 2.0 partaidetza eta toki entitateei buruzko hausnarketa eskaini zuten.

Diego Chueca adimen artifizialen arloko aholkulariak eta Gipuzkoako Diputazioko zenbait teknikariek, berriz, adierazi zituzten entitate horretako partaidetza plataforma horren ezaugarriak.

Bukatzeko, Iruñea, Tuter, Ablitas, Agoitz eta Lodosa udalako ordezkariak, hala nola Iruñerriko Mankomunitatekoek, azaldu zituzten arlo honetan beren herrietan erabiltzen dituzten tresnak.

Agoizko udalak azpimarratu zuen udalaren azken urteetako ahalegina, udala herritarrei irekitzeko eta feedbacka lortzeko. Eta adibideak jarri zituen: auzoetako bilerak, partaidetza prozesuak erabiltzaileentzat ordenantzak, on-line bidezko berrien buletina, Ximple aldizkaria edo app-a. Horren aplikazioari buruz, udalak errepasatuz ituen haien erabilerak eta funtzioak, eta nabarmendu zituen, bereziki, Agoitz hobetzeari zuzendutako atalak eta informazio probetxugarria emateko bidal daitezkeen mezuak.

Irache kontsumitzaileen elkarteak aurretiko zita ezarri du

Irache kontsumitzaileen elkarteak gure herrikoen eskakizunetara erantzuteko Agoizko bulegoetan hileko azken asteazkenean ematen ohi duen zerbitzuak funtzionamendu berria izanen du. Hemendik aurrera aurretiko zita eskatuko da, eta hala zerbitzua eraginkorragoa eta ordenatuagoa izanen da herritarrentzat.

012 herritarrentzako telefonora deitu behar da. Posiblea da, da-

goeneko, hara deitzea Agoizko udaletxean dagoen OMIC (kontsumitzaileei arreta emateko bulegoa) joateko.

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak ezarrita ditu 2018. urtean Agoitzeko egonen den egutegia: maiatzaren 30a, ekainaren 27a, uztailaren 24a, abuztuaren 29a, irailaren 26a, urriaren 31n, azaroaren 28a eta abenduaren 26an.



Gogorazi nahi dugu Irache Kontsumitzaileen elkarteak eskaintzen duela zerbitzu hau, Agoizko Udalaren kolaborazioarekin, eta interesatuek doan jaso ahal dutela.

Konposta egiteko gune berria

Duela lau urte martxan jarri ziren Agoitzeko konposta egiteko guneak, eta asko dira, dagoeneko, horretan parte hartzen dutenak eta haien etxetan sortutako hondar organikoak egunero gune horietara eramaten dituztenak. Ikusirik leku desberdinetan izan den harrera ona, orain gune berri bat prestatu da Larrinetako kalean, 24.

Gure asmoa da gune berriak sortzen joatea. Herritarrengandik ahalik eta hurbilen izateko, zerbitzu hobea eskaintzeko eta jendearentzako egiteko erosoagoa lortzea.

Edozeinek erabiltzen ahal ditu konposta egiteko gu-



Atez ateko landare eta belar hondarren bilketa

Hilerriko bidean zegoen inausketa hondarrak botatzeko gunea kendu eta, udalerriko ondoko beste leku batean ezartzea ezinezkoa izan denez, gogorarazten da orain hondarrak botatzeko gunea berria "Beraxitoa" auzoan dagoela.

Leku horretaz gain, Irati HHS Mankomunitatea landare eta belar hondarren doaneko etxez etxeko bilketa egiten hasiko da, hondar

horiek ongi kudeatzen direla ziurtatzeko. Hondar bilketa zerbitzu hori jaso nahi duenak Mankomunitatera deitu beharko du.

Nola eskatuko dugu bilketa zerbitzua?

Telefono honetara deituta: 948 33 62 17, 07:30-11:30 bitartean.

Edo honetara: 609 66 72 33, 07:30-14:30 bitartean.

Noiz pasako gara bila?

Astelehenetan, lehen orduan. Hondarrak 08:00ak baino lehen utzi beharko dira.

Nola utziko ditugu hondarrak?

Belarra, 50 L-ko poltsatan sartuta, eta poltsa ongi itxita. Inausketa hondarrak, berriz, sortatan bilduta. Etxeko atean utziko da.

Informazio gehiago eskuratzeko, deitu 609 66 72 33 telefono zenbakira, goizeko 7:30-14:30 bitartean.



Gure ingurua zaintzen

Agoizko udalak Iratiko Interpretazio Ibilbidea deitutakoan seinale batzuk jarri ditu motorrak bertatik igaro ez daitezkeen. Haien bidez gogorarazi nahi izan da 36/1994 Foru Dekretuaren 11. artikulua ezarritako debekua: «debekatuta dago motordun ibilgailuekin errepidetik kanpo landetan barna ibiltzea, hala nola bi metro baino gutxiagoko zabalera duten pistetan, suhesietan edo egurra ateratzeko tira-bideetan.

Modu berean, ezingo da ibili administrazioak espre-suki debekatutako bide edo oihan pistatan, nahiz eta bi metro baino gehiagoko zabalera izan».

Errespetua eta kolaborazioa eskatzen dizuegu, bi-deak ahalik eta hoberen manten ditzagun eta gure ingurua zainduta egon dadin.



2018ko Zuhaitzaren Eguna

Pasa den martxoaren 29an izan zen Agoizko Zuhaitzaren Eguna. Aurreko asteetan egitea aurrikusita baldin bazegoen ere, eguraldia zela eta, bertan behera utzi behar izan zen, presako moduan izan bazen ere. Hala ere, jende asko animatu zen jardunaldian parte hartzera.

Udalaren inizatibak ingurumenarekiko eta gizartetasunaren aldeko kontzientzia sustatu nahi du herritarren artean, eta, bereziki, gure herriko bizi kalitatea hobetzeko zuhaitzak landatzearen beharra. Klima aldaketari buruz gero eta gehiago hitz egiten den aldi honetan, zuhaitzek ematen dizkiguten onuren inguruan kontzientzia hartzeko eta garaia da.

Aurten Beraxitoa parkea aukeratu zen. Duela bi urte ere, bertan landatu ziren zuhaitz batzuk. Udalaren asmoa da parke horretan

itzal handiko eremua edukitzea, leku lasaia eta paseatzeko egokia baita. Gainera, Iratiko Bide berdearen inguruan dagoenez, ibiltzeko eskaintza handituko da gerora.

Zuhaitzaren Eguneako seigarren edizio honetan askaldegi bat jarri zen: egurrezko bi mahai eta bankuak, eta, haien inguruan, lizarrak, astigarrek eta urkiak. Irati HHS Mankomunitateak Agoizko konpost guneeetan eginiko eta utzitako konposta eta oinarria erabili zen.

San Migel ikastetxeak ere ospatu zuen Zuhaitzaren Eguna, eta, azken urteetan egin ohi den moduan, zuhaitz bat landatu zuten (urkia) eta monolito bat jarri zen aurten eskolan hasi diren haurren izenak jasotzen zituen. Ekitaldira joan ziren haur horien senideak.

Lerro hauek baliatu nahi ditugu inizatiba polit honetan urtero parte hartzen duzuen horiei eskerrak emateko eta parte hartzen jarraitzeko gonbidapena egiteko.



Aurrepirinioak elkartasuna agertu du berriz ere

Pasa den apirilaren 21ean, Agoizko, Artzibarko, Longida eta inguruko herri eta haranetako herritarrek elkartasuna adierazi zuten Artzibarko Gorraizko familiarentzako dirua biltzeko antolatutako

jaialdian partaidetza masiboa izan baitzen. Su bortitz batek kiskali zituen, duela gutxi, familia horren etxebizitza eta bi ibilgailu.

Eguraldiak ere lagundu zion jaial-

diari, eta giro ezin hobean garatu zen. Merkatuko plazan lau orduz aritu ziren herriko musika taldeak, Elurte barne, eta horiek erakarri zituzten herri ekimen horretarako parte-hartzaileak.



Gizarte, hezkuntza eta kultura dirulaguntzen ebazpenak

Agoizko udalak duela gutxi ebatzi zituen gure herrian kultura, gizarte eta hezkuntzako jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia.

Udaletxeko teknikariek eta politikoek osatu zuten aurkeztutako proposamenak baloratzeko batzordea, eta aurkeztu zen entitate bakarrari, Angiluerreka Elkar-

teari alegia, 1.620 euroko laguntza ematea erabaki zuten, jai-aurreko asteko aktibitateak egiteko.

Hezkuntzaren arloan, dirulaguntzak UMAFY eta Guraso Elkar- (LHI eta DBHI-ko ikastetxe publikoarena eta 0-3 haur eskolarena) antolatutako jarduerak finantzatzera bideratu dira. Bi kontu-sail

dira, hurrenez hurren 2.500 eta 800 euro egiten dutenak.

Berrikuntza ere izan da, lehenengo aldiz gizarte jarduerak antolatzeko laguntza eman baita. Sarean elkar- teak 570 euro jasoko ditu, bigarren eskuko azoka antolatzeko eta jostailua, oinetako eta manta bilketa eta banaketa kanpaina egiteko.

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Agoizko udalak 2018ko Jaiak iragartzeko XXI. Txartel Lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren oinarriak eskura daude web-orrian, udaletxean eta kultur etxean. Bi modalitate daude: bat artista helduei zuzendutakoa eta beste bat artista gazte eta hurrei. Azken horretan hiru kategoria bereizi dira: 5-7 urteko haurrentzakoa, 8-12 urtekoentzako eta 13-16 urteko gazteentzako.



Originalak jasotzeko epea ekainaren 15an bukatuko da, eta lanak udal bulegoetan aurkeztu beharko dira. Lehiaketaren epaimahaiak erabakiko du zein den haur-gazte kategoriako irabazleak eta artista helduen kategoriako hiru lan aukeratu dituzte. Ondoren, partaidetza prozesu bat irekiko da, eta, hiru lan finalista horien artean, herritarren bozkek aukeratu dute kartel irabazlea.

Apirileko kultur balantzea

Aste Santuko oporraldiaren ondoren, berriz aktibatu zen apirileko kultur aktibitatea. Nabarmenezkoa da, arte eszenikoetan, Agoizko Dantzari Taldeak antolatutako «Erratzak Dantzan» ikuskizun berria, ikusle eta partaidetza handia izan zuena.

Liburuaren egunaren kariatara ere, zenbait aktibitate antolatu dira: ahozko narrazio saioak San Migel ikastetxeko ikasleentzako, Mari Cruz Aquerretaren esku; «Consejo de Guerra. Injusticia Militar en Navarra, 1936-1939» Ricardo Urrizolaren liburuaren aurkezpena; eta Agoitz Hiria Narrazio Laburren

Lehiaketaren XII. Edizioan lanak aurkezteko epea bukatu zen. Lehiaketan San Migel ikastetxeko lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten.

Horrez gain, Kultur Etxeko Areto Nagusian, ikusgai egon zen «Navarrorum. Euskarari buruzko Nafarroako bi urteko dokumentuak» erakusketa interesgarria.

Musika presente egon da ere, Musika Eskolak ikastetxeko ikasleei eskaini zien kontzertu didaktikoarekin.

Aurten, Euskararen Eguna apirilera mugitu da, eta hileko azken aste-buruan zenbait ekitaldi antolatu ziren, euskara protagonista zutela.

Hilea bukatzeko, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen Dánzalo Dantza Eskolaren eskutik: erakustaldi bat egin zuten pilotalekuan, publiko handia izan zuena.

Nabarmenezkoa da, aipatutakoaz gain, Harituk antolatutako hitzaldiak, jaioberriko ninientzako musika ardatza zutela eta eskolako jazarpena galaraztea helburua zutenak.

Euskararen Eguna

Pasa diren apirilaren 27 eta 28an izan ziren Euskararen Egunaren kariatara antolatutako aktibitateak. Lehenengoa izan zen Toki Eder pilotalekuan egindako bertso-pelota saioa, zeinetan emakumeak izan ziren protagonista bakarrak. Lehia kirol mailakoa izan zen, baina kulturala ere; izan ere, pilotari bikote bakoitzak bazuen haren alde egiten zuen bertsolaria. Hauexek eta adierazten den moduan aritu ziren: Olatz Ruiz de Larramendi eta Patri Espinar (Amaia Agirreren laguntzarekin), Eneritz Arrieta eta Maite Ruiz de Larramendiren (Ohiane Perea bertsolariarekin) aurka. Proposamen berritzaile horrek harrera ona izan zuen,

bai bertaratutako jende kopurua kontuan hartuz, bai izandako aldeko iritziengatik. Larunbatean, hilak 28a, musika izan zen jardunaldiko protagonista. Musika taldek eta erraldoien konpartsak girotu zuten Agoitz Kantuzek goizean egin zuen ibilbidea. Ondoren ekitalditxo bat egin zen, zeinetan gonbitea egin zitzaientzen euskaldunei euskara erabil dezaten eta ondoren AEK-ko ikasleek txapela bat oparitu zioten entitatean 30 urte egin zuen irakasle bati. Ondoren, herri bazkaria egin zen, eta bertan ere abestiek izan zuten leku nabarmena. Laiotz taldeak borobildu zuen eguna.



Euskaraldiaren aurkezpena

Pasa den apirilaren 20an, Agoitz eta eskualde osoko euskaltzaleak Aurelio Leon aretoan elkartu ziren Euskaraldiaren aurkezpenean. Euskararen sustapenean lan egiten duten erakundeek sustatutako iniziatiba da. Euskaraz aritzeko ariketa modura aurkeztu da, denbora zehatz eta mugatu batean (11 egun). Ariketarako, euskararen erabilaren aldetik bereizitako bi profil zehaztu dira: ahobizi eta belarriprest. Ahobizi izanen dira egun horietan zehar euskaraz bakarrik

erabiliko duten pertsonak, eta belarriprest, berriz, erabili ez baina haiei euskaraz zuzentzea eta egitea eskatzen dutenak. Euskararen aldeko lehen ekimena da, euskararen eremu geografiko osoko gobernuen laguntza eta atxikimendua jaso duena. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingen da. Bileran lan-talde bat osatu zen, dagoeneko aurretiko lanekin hasi dena, proposamenak Agoitz ahalik eta oihartzun handien izan dezan. Egingo al dugu proba?

Kirola hitzarmenak, sinatuta

Agoizko udalak apirilean sinatu ditu kirol arloko bi lankidetzak hitzarmen. Horietako bat Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioarekin egin da, kirol horren sustapenean egiten duen lana babesteko. Hitzamen horri esker, Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak gure herriko gazteak aritzen diren erremonte eskolak antolatzen ditu Agoitz. Eskolaren monitoreak dira Ibai Barrikart eta Mikel Otano.

Bigarren hitzarmena K1T entitatearekin sinatu da, hots, txirrindulari zaletuentzako Nafarroako Itzulia antolatzen duenarekin. Maiatzaren 27an, Agoizko Nafarroa behekoa plazatik, abiatuko da aurtengo

lasterketaren azken etapa. 100 kilometro gogor izanen dute egiteko, Iruñeko San Lorentz on jarriko den helmugara ailegatu aurretik.

